

AUTISMOA

Egileak:

Blazquez, Leyre

Calvo, Onintze

Gonzalez,

María

Unzalu,

Maialen

GURE KODEA:



SARRERA: (Ikasgaiarekin erlazioa)

Autismoaren gaia aukeratu dugu gai interesgarria iruditzen zaigulako eta informazio gutxi daukagulako honen inguru. Beraz, interesgarria izango litzateke autismoari buruzko artikulua, dokumentuak eta berriak bilatzea eta hauen laburpen bat egin informazio guztia bilduz eta gizarte psikologiarekin lotuz. Badakigu gizarte psikologia, psikologiaren lau adarretako bat dela eta pertsonen pentsamenduen, sentimenduen eta hauen ekintzen inguru mugitzen dela, beraz erlazio estua aurkitzen dugu gure gaiaren (autismoa) eta gure ikasgaiaren (gizarte psikologia) artean.

Badakigu autismoa pertsonen nortasuneko arazo bat dela, hau da, autismoa normalean, haurtzaroko gaixotasun bat dela eta beste pertsonetikiko harreman-eskasia nabaritzen dela pertsona hauetan. Beraz, gizarte psikologiarekin erlazioa dezakegu ikus dezakegulako pertsonen sentimenduen inguru eta ekintzetan oinarritzen dela, hau da, autismoa duten pertsonen sentimenduak adierazteko eta besteekin erlazionatzeko arazoak dituzte.

Autismoa:

Lana autismoari buruz egitea erabaki dugu honi buruzko informazio gutxi daukagulako. Beraz, interesgarria izango litzateke autismoari buruzko artikuluak, dokumentuak eta berriak biltzea.

Autismoa haurtzaroko gaixotasun bat da; beste pertsonetikiko harreman-eskasia nabarmenak dituen.

Bere sintomak 2-5 urte bitartean agertzen dira; adin horretan ume normalak beren gizarte-mailako portaera erabat finkatzen hasiak bait dira, baina ume autisten gurasoak lehenagotik hasi dira konturatzen beren umea “arraroa” dela.

Ume autistak onak izaten ohi dira, normalean ez dute negar egiten eta lasai egoten dira inoren beharrik gabe. Beren gurasoen aurrean “distrayituta” bezala egoten dira eta ez diete haien maitasun-ekintzei erantzuten.

Honekin jarraitzeko, autismoa orokortzen duen artikulu txiki bat egin dugu, interneteko informazioa bilduz eta pertsonalizatuz.

Munduan, milioka zenbatzen dira autismoa duten pertsonak eta hamaika dira horri buruz egiten diren ikerketak. Baina azterketa horiek datuak baino ez dituzten isladatzen. Bada, kasu guzti horien atzean pertsona bat dago, sentimendu bat dago, itxaropen bat. Eta gure lana, hori ikustea eta norbanakoarekin lan egitea da. Dena den, gai hau hobeto uler dezagun, lehenik eta behin, autismoa zer den azaltzea ezinbestekoa ikusten dut.

Gaixotasuna ez dela adierazi behar da, garapenaren nahastea baizik, komunikazioari, irudimenari, planifikazioari eta elkarrekikotasun emozionalari eragiten diona. Era berean aipatzekoa da, autistak ez direla egiten, baizik eta horrela jaiotzen direla. Garapen normala izaten dute, bi urteraino gutxi gora behera. Momentu horretan, ikasitako ahalmenen erregresioa izaten

dute; komunikatzeko interesik ez duten haurretan bihurtzen dira, jokabide arraroak egiten hasten dira – eskuen aleteoak bezala- argiekin, usainekin edo entzumenekin liluraturik gera daitezke, gorputzaren kuluskada, negar eta barre nahigabeak, batzutan beroaren eta hotzaren aurrean axolagabeak dirudite, ez dute beste umeekin jolasten etab. horri erregresio autista esaten zaio.

Gainera, autismoaren formarik arinena antzemateko, zailtasunak egon daitezke eta askotan lotsarekin, atentzio faltarekin edo xelebrekeriarekin konfunditu daitezkie. Horregatik, adin txikiko haurrekin tratatzea ebaluaketa positiboagoa dakarrela ondoiozta dezakegu eta kasu horietan egiten diren ekintzetan oinarritzea beharrezkoa ikusten dut . Izan ere, nahiz eta autismoak jatorri biologikoa izan, ikasteko ahalmena dute haur horiek. Metodo egokiagoak bilatzea baino ez da behar. Baina nola egin diezaiokegu aurre arazo horri?

Gaur egun oraindik ez da existitzen autismoarentzako tratamendu zehatz bat. Hala eta gustuz ere, horri aurre egiteko hainbat terapia daude, jarraian azalduko ditudanak, alegia.

Portaeraren terapia dugu lehenengoa, zeinek hezkuntza erabiltzen duen autismoari aurre egiteko . Izenak esaten duen moduan, konduktismoan oinarrituta dago. Horrek, gaitasunak irakasteko helburua du, zigorra eta sarian oinarriturik.

TEACCH terapia, komunikazio bisualean oinarritzen da, irudi eta sinboloen bidez, zeinek kontzeptuak eta hitzak errepresentatzen dituzten.

PECS (Picture Exchange Communication System)- ri dagokionez, Amerikako estatuan erabili den teknika ohikoa da komunikazio bisualean eta idatzi-irakurtzeko metodoetan oinarritzen dena.

Beste aldetik, musiko terapia dago. Honen bidez, haurra eta musikaren artean erlazioa bilatzen da. Horren harira, Izurdeen terapia, Zaldien terapia eta abar ditugu ere, eta izenak esaten duen moduan, zaldiekin edo izurdeekin egindako terapiak dira. Gainera, haurrentzako esperientzia handiko uneak izaten dira.

Orokorrean teoria aipatu ondoren, esperientziara joko dugu. Hona hemen 3 urteko mutil baten adibidea.

Beñat hazten joan zen heinean, arazo bat zuela konturatu ziren, baina antzemateko zailtasunak izan zituzten. Behin autismoa zela ikusita eta haurrak klasea hastean, berarentzako

metodologia zehatza eta berezia behar zela ikusi zuten eta tratamendu terapeutiko- hezigarriaren terapia erabiltzen hasi ziren. Horren oinarri teorikoa hauxe da: lehenik eta behin oso garrantzitsua da nahastearen edo trastornoaren zergatia ikertzea eta horrek haurran izan ahal duen eragina. Ingurumen estrukturatua sortuko da, bai espazioaren aldetik bai denboraren aldetik. Haurrarentzako motibatzailea izan behar dena, beti ere horren garapena kontuan harturik. Hezitzailearen edo irakaslearen papera ezinbestekoa da, haurrarekiko duen erlazio positiboa oinarritzotzat hartu behar delako. Lehenengo horrek, umearen konfiantza irabazi behar du, bere nahien araberrako jolasak eginez, bere atentzioa bereganatuz etab. Behin hori eginda, hainbat proiektuen plangintza egitera pasatuko gara, non garapenaren etapa desberdinak landuko diren, zeintzuk eguneroko bizitzan eragina izango duten, eta haurrarentzako eta horren bizitza sozialerako erabilgarriak izango direnak.

Beraz, jarreraren aldaketa lortu behar da eta hezitzailearen laguntza behar du haurrak. Horregatik, aurre-planifikazio bat egin behar da, sortu ahal diren egoera desberdinei aurre egiteko. Dena den, errepikatu behar da, ume bakoitzak izaera eta egoera desberdinak dituztela, beraz, ez dagoela metodologia zehatz bat.

Beñat-en kasuan, lehenik eta behin bere jarreraren mantendu behar zena zehaztu zuten. Ekintza horien artean siesta, bere ohiturak, espazio lasaietara irtetzeko aukera, zentru eta familiaren arteko erlazioa, kanpoko zerbitzuekiko erlazioa –Apnabi (Bizkaiko autismoa eta beste autismo espektroaren nahasteak dituztenen gurasoen elkarte), berritzeguneak... - etab. zeuden. Gero, sahiestu behar ziren uneak zehaztu ziztuzten ere. Horren helburua angustia eragiten dioten egoerakb, kondukta ez-egokitzailleak indartzen duten egoerak , gela ordinalean – gainerako haurrak dauden gelan- sortu ahal diren bihurdurak sahiestea... eta azkenik horren harira zer gaineratu behar den. Printzipioz, hezitzailearen ardura, krisiak aurreikustea da, horrela gero sortu ahal diren arazo asko sahiestu daitezkeelako. Beste pertsonekin erlazioak izatea ezinbestekoa da ere. Gainera, autismoa duten haurrek rutina behar dutenez, bere ohikoa den ingurunetik kanpo, klasetik kanpo, alegia, egiten diren irteerak kontrolatu behar dira.

Aipatu dugun moduan, antsietatearen momentuak murrizten ahalegindu behar dira hezitzaileak. Normalean momento hauek sortzen dira rutinaren aldaketak sortzen direlako. Horregatik, goizero eguna 3 zatitan banandu behar da: zentrura iristen direnetik patio ordurarte;

patio ordutik jateko ordura arte eta arratsaldea. Hasiera, *Beñatek* ez du jakingo atal bakoitzean zer egin behar duen, baina ikaskideak edo hezitzaileak imitatuz, ikasten joango da. Ondorioz, dena era egoki batean egiten badu errefortzu positiboak izango ditu: gustoko dituen ekintzak egitea, estimulu sentsozialak, gorespen eta onarpen soziala edo janaria. Beste alde batetik, zigorak ere jaso beharko ditu. Horiei dagokionez, errefortzu positibo horien galera, amatatze zuzena, hau da, txarto portatzean denean kasurik ez egitea, horrela jarrera hori inora eramaten ez diola ikusiko du, baita aislametua ere, non haurrari bizkarra emango zaion jarrera aldatzen duenerarte. Beste askotan, EZ! Argi batekin nahikoa izango da. “Rabieta” horien zergatia, frustrazioa da, *Beñaten* kasuan, berak izan nahi duelako bere ekintzak planifikatzen dituen. Gainera, haserrealdi horien bidez, atentzioa edo maitasuna behar duela azaltzen dezake, edo gure exigentziekin nekatuta dagoela. Hala eta guztiz ere, egoera bakoitza zergatik sortu den ikusi behar da eta horien arabera modu batean edo bestean jokatu, beti ere modu lasai eta arrazional batean.

Hori guztiarekin batera, terapia jorratuko den leku guztietan sortu ahal den egoera aurreikusi behar da. Hau da, klasean, patioan, jantokian, siesta orduan etab. Lehenengo horrekin hasteko, esan dezakegu, *Beñatek* goizero errutina bera jarraitzen duela: txamarra gakoan eskegitzea eta amantala jartzea – beti laguntzarekin – bere poltsa horia dauka bere jostailuez beteta, zeinek soilik korroan eserita dagoen bitartean erabili dezaken, zerrenda pasatzerakon bere burua aurkeztu behar du etab. Aipatu beharra dago ere, txarto dagoenenan ez dela beharrezkoa klasean egotea; gelatik atera daiteke, eraikuntzatik buelta bat eman dezake, sukaldariengana bisita egitera joan daiteke, euren soilairuko tutoretzako ordenagailuetan pelikulatxoren bat ikusteko aukera du... Patioara joatekotan, trena eginda joango da eta bertan, autonomoa eman behar zaio, besteekin jolasteko askatasuna. Batzutan, patioa luzeegia egiten zaioa eta klasera igotzeko beharra du, bertan jolasten jarraitzeko. Jantokiari dagokionez, hezitzailea edo irakaslea egon behar da berarekin. *Beñatek* ez du fruta gogoko eta ez zaio derrigortu behar. Haserrealdi egoera batean, kanpora atera behar zaio, lasaitu arte. Berak gogoko duen zerbait ematea komeni da, dinosaurioren bat edo ipuinen bat bere kasuan.

Azkenik, ondoriozta dezakegu, hezitzailearen papera ezinbestekoa dela autismoari aurre egiteko egoeretan. Gainera, lehenengo urteetan lantzea oso garrantzitsua da ere, garai horietan

haurrek oso somakorrak direlako. Aldaketan sinistu behar dugu, guztiok. Familiaren parte hartzea haurraren garapenerako beharrezkoa da, eta noski, hezitzaileena baita ere. Guztiok batera aldaketa lortzeko gai izango garela pentsatu behar dugu.

AUTISMO MOTA AUTOREEN ARABERA

Kanner sindromea haurren autismoa da. Ezaguna da, badarama 50 urte baino gehiago eta horregatik ez da ezezaguna psikologiaren arloan, arlo klinikoan, ezta arlo psikopedagogikoan. Honi buruz, autore batzuk hitz egin dute noizbait sindrome honi buruz, esaterako:

Sanctis (1906 - 1908), Earl (1934), Kanner (1943), Mahler (1953), etab. Baina definizio egokiena Kannerrena izan zen, horregatik bere izena hartu zuen.

Gaur egun autismoa ezagutzen da garapenaren trastorno sakon bat bezala eta honen sintomak gizarteratzearen narriadura, besteekin elkarrenganako interakzioaren faltagatik; zailtasunak komunikatzeko orduan eta imajinazio falta dira. Gainera sintoma hauek beste batzuekin etorri ahal dira, esaterako: giza antsietatea, ikasteko zailtasunak, hizkuntzan zailtasunak, pertzepziorako zailtasunak, etab.

Autore guztiek ados daude, deterioro soziala dela sindrome honen arazo nagusia. Beraz, hainbat teoriak sortu dira deterioro sozial honen arrazoia ezagutzeko.

Teoria garrantzitsu bat “Teoria de la mente” deitzen dutena da:

Teoria honen oinarria, gizakiaren ezintasuna beste gizakien kondukta azaltzeko, bere egoera mentalaren arabera da. Beraz, ikerketa honetan, teoria honen kritika bat egitea eta gaur egun nola dagoen ikustea da helburua.

Ikerketan aipatzen dira puntu garrantzitsu batzuk, hau da, aipagarriak iruditu zaizkigunak, esaterako:

- Fikzioa “teoria de la mente”-ren aurreko manifestazio bat dela: Autore batzuk esaten zuten haur batek ekintza bat finjitzean ezagutza bikoitza betetzen zuela zeren eta ekintza erreala buruan gordeta eduki behar du, hau da, badaki akzio erreala zein den, eta beste aldetik ematen ari den ekintzaren kontzientzia du ere. Ezberdintzen du erreala dena eta ez dena erreala eta koordinatzen ditu termino horiek.

- Errepresentazioak mundua burura eramaten dute eta ondorioz, mundu errealaren kontzeptuak ulertzen dira. Munduaren errepresentazioak egitea oso garrantzitsua da.

- Haur autista gehienek, “Teoria de la mente” era primitibo batean daukate, hau da, ez dute garatuta, beraz, ez daukate gezurra diren kreentzien atribuzioa, hau da, lehen aipatutako fikzioaren kontzeptua. Ondorioz ikus dezakegu autistek ez dituztela gure burmuineko egoera guztiak ulertzen, opakoak direnak, esaterako, ikustea.

Gainera Wing-ek 3 autista motak bereizten ditu:

- Autista erreserbatuak, hau da, interakzioa ekiditzen dutenak.
- Autista pasiboak, interakzioa onartzen dutenak baina bilatzen ez dutenak.
- Autista aktiboak, jende arraroa, interakzionatzen dutenak baina era ezberdin edo arraro batean.

Autista den pertsona, subtipo hauetan mugi daiteke bere adinaren arabera.

Hau kontutan izanda badaude hiru defizientzia garrantzitsuak:

- Giza erlazioak
- komunikazio arazoak
- Fikzioa

Hau guztia laburbilduz esan dezakegu:

- Autismoaren kausa nagusia, deterioro kognitiboa dela (zentrala.)
- Giza habilitateen deterioroa; kreentziak, ametsak, desioak, etab.
- Aurrean aipatutako giza erlazioen deterioroa

- Habilitate simbolikoak: Fikzioa

AUTISMOA URTETIK-URTERA

Autismoa, adinaren arabera desberdina izaten da. Beraz, orain, urtez-urte behatuko dugu:

1) Jaiotzetik 18 hilabete arte azaltzen diren ezaugarriak:

Laztan, besarkada eta pertsonetikiko interes falta izaten dute. Ume batzuek negar asko egiten dute, beste batzuek, berriz, ez dute negarrik egiten. Balantza mugimendu errepikatua, eskuekin esterotipia eta abar egiteko joera dute. Elikatzeko eta lo egiteko arazoak izaten dituzte, baita ageriko gorraizea.

2) 18 hilabetetik 4-5 urte bitartera.

Garai honetan ere harremanak izateko zailtasunak dituzte. Hizkuntzan alterazioak edo honen falta izaten dute; gainera, beroaldiak eta antsietateak kontrolatzeko zailtasunak handiak dira. Aldaketekiko konplikazioak dituzte, egunero gauza bat egiten badu eta egun batean hori aldatu egiten bada, asaldatu egingo da. Mugimendu errepikatuak egiten ditu eskuekin, buruarekin, gorputzarekin eta abar. Erantzunetan autonomia garapen eskasa dute, ez dira gai beraiek bakarrik janzteko, jateko... Askotan, auto-agresioak azaltzen dira, adibidez, paretaren kontra jotzen dute bere buruarekin haserretzean.

3) Lau eta bost urtetatik aurrera:

Zailtasunak edo ezintasunak dituzte sinboloak maneiatzeko, hizkuntzan eta erlazioak

izateko zailtasunak.

4) Heldutasun garaia:

Horrelako pertsonen laguntza profesionala behar izaten dute. Oso gutxitan garatzen da lan independente eta produktiboa. Beraien ongizate psikologikoa bermatzeko autistek laguntza modu jarrai batean jaso behar dute. Orokorrean, autista helduek ordenatuak eta konplexuak ez diren inguruak behar dituzte.

Autismoaren inguruan, elkarte asko daude, esaterako, ASPAU (Asociación Proyecto Autista), APNABI, BATA (Baion Asociación Tratamiento Autista).

Apnabiren helburua da, kalitatezko zerbitzu integrala eskaintzea autismoaren espektroko edozein nahaste duten pertsonen eta beren senitartekoei. Autismoa eta Autismoaren Espektroko bestelako nahasteak dituzten pertsonen eta beren senitartekoen bizi kalitatea hobetzea, horretarako bermatuz arreta integrala, pertsonala eta kalitatezkoa emango zaiela beren bizi ziklo osoan zehar.

Zerbitzuei buruz honako hau esan dezakegu: hezkuntza eremua, kontsulta eremua, eguneko arreta eremua, etxebizitza eremua eta sustapen soziolaboraleko eremuetan lan egiten dute.

- Hezkuntza eremua: Eskolatze prozesua erabakigarria da pertsona guztien etorkizunerako, baita autismoa dutenentzako ere. Funtsezkoa da bizi kalitateaz gozatzeko, hezte eta ikuspegi horretatik diseinatzen da Apnabik eskaitzen duen erantzuna.
- Kontsulta eremua: Eremu honetan, diziplina anitzeko profesionalek arreta anbulatorioa eskaintzen diete Autismoaren Espektroko nahaste (AEN) bat duen pertsonaren senitartekoei; halakorenbat jasan dezakeela susmatuz gero ere kontsulatara joan daitezke.
- Eguneko arreta eremua: Gure lehentasunezko helburua da pertsona horien bizi kalitatea hobetzea. Horretarako, problema indibidualak garatzen ditugu, gizarte eta hezkuntzan

edota lan munduan sartzen laguntzeko eta garapen globala bideratzeko.

Elkartearen ikuspegiari dagokionez, autismo eta autismoaren espektroko beste nahaste batzuen esparruan erreferente izatea honako hauengatik: bizi kalkitatea hobetzeko gauzatutako praktika onak, pertsonen beharrianetara egokitutako arreta ereduak, erantzun globala eta parte hartze soziala.

Baloreen inguruan, honako hauek ditugu: konpromiso etikoa pertsonekin antolakundeekin eta gizartearekin, aukera berdintasuna eta gizarteratzea, parte hartzea, taldeko lana eta kontsensua bermatzea, profesionaltasuna edukitzea, etengabeko prestakuntza, bezeroarenganako orientazioa, erantzukizuna eta lankidetzak publikoa, kudeaketa gardena eta etengabeko hobekuntza.

Ondokoak dira APNABIk esku-hartze esparru anitzetan aplikatzen dituen jarduerak printzipioak:

- a. Pertsona bakoitzaren balioa eta duintasuna; pertsona batek pertsona hutsa izateagatik, balio bat dauka, edozein direla ere bere ezaugarri bereziak. Pertsona orok du duintasunez bizitzeko eskubidea.
- b. Erantzun integralak eskaintzea bizitza osoan zehar bizi kalitatea hobetzeko. Kontzeptu horrek islatzen ditu zeintzuk diren pertsona batek desiratzen dituen bizi baldintzak.
- c. Gizarteratze printzipioa izatea beti buruan; hiritar garen aldetik, erabateko parte-hartze sozialetik abiatzea eta parte-hartze sozial hori lortzea.
- d. Konpromiso profesional etikotik abiatzea eta etengabeko hausnarketa eta hobekuntza jarrera edukitzea.

BIBLIOGRAFIA:

- Creatividad, arte, terapia y autismo

<http://revistas.ucm.es/bba/11315598/articulos/ARIS0303110135A.PDF>

- Programa integral para la enseñanza de habilidades a niños con autismo

<http://www.psicothema.com/psicothema.asp?id=3093>

- La alteridad en la atención especial del autismo

http://ciruelo.uninorte.edu.co/pdf/psicologia_caribe/15/7_La%20alteridad.pdf

- Juego de ficción.

<http://www.psicothema.com/psicothema.asp?id=3169>

- Cambios en los sistemas de convicciones/valores de familias de niños con síndrome down y autismo

<http://www.downcantabria.com/revistapdf/89/King.pdf>

- Educación y autismo: La importancia del estímulo visual.

http://www.forodeeducacion.com/numeros5_6/005.pdf

- ¿Qué origina el autismo?

http://www.autismo.org.ve/articulos/que_origina_el_autismo.as

- <http://www.autismo.org.ve/articulos/>

- <http://autism.lifetips.com/es/cat/66415/qu-es-el-autismo/index.html>

- <http://www.comunidad-autista.org/content/view/36/31/>

- http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik_kod=6897

- <http://haizeahh.blogspot.com/2007/05/autismoa.html>

- <http://haizeahh.blogspot.com/2007/05/autismoa.html>

- <http://apnabi.blogspot.com/2011/02/autismoa-hobeto-ezagutuz.html>

- http://www.autismo.org.es/AE/autismo/queesautismo/Que_son_los_Tastornos_del_Espectro_Autista.htm

- <http://aspau.blogspot.com/>
- <http://www.autismobata.com/index.aspx>

-Investigacion en autismo
<http://rabida.uhu.es/dspace/bitstream/handle/10272/331/b11992918.pdf;jsessionid=A1B0E01D7BB93A74FFD757E9903C3D08?sequence=1>

- Autismoa eta X hauskorren sindromea
http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik_kod=11307

- La “teoría de la mente” y el autismo infantil
<http://revistas.ucm.es/edu/11302496/articulos/RCED9393220011A.PDF>

ERANSKINAK:

GURE BLOG-A:

Hona hemen, Autismoari buruz sortu dugun blog bat:

<http://atusmoaetagitartehezitzaileak.blogspot.com/>

Hemen intereseko datuak, bideoak, dokumentalak, berriak, etab. aurki ditzakezu.

DELICIOUS:

Erabili ditugun bideoak eta haibat orrialdeak sarean ikus ditzagun eta guztiok erabili ahal izateko Deliciousen sartu ditugu. Gainera gure bloga eta gure lanaren linka jarri dugu, jendea ikusi ahal izateko. Espero dugu baliogarria izatea.

<http://www.delicious.com/Leyre.blazquez>

ARTIKULO BATZUEN LABURPENAK:

Arazo honen ikerketak sortzen dira metodologia ezberdin batzuegan, baina gehienbat psikologiarengan.

Ikasketa honetan Venezuelako errealitatea ikus dezakegu autismoari dagokionez, giza, historiko eta kultural perspektiba batetik. Horretarako ikerketa deskriptibo bat egin zen 77 partaideekin eta 29 entitate federalen 59 zentruen parte hartze aktiboarekin.

Hasteko artikulo honetan giza interakzioen garrantzia aipatzen da, hau da, txikitatik, beste pertsona batekin arremanak izan behar ditugula. Erlazioak ez badaude, ez dago estruktura bat ezta sormena.

Ikerketa honen metodologiari dagokionez, metodo deskriptiboa erabili dela esan dezakegu eta garrantzia ematen zaio autistengan dugun kontziderazioaz, bai nagusiei, bai haurrei. Aplikatu zen teknika, behaketa izan zen.

Afektibitatearen faltaren ebidentzia ikusi izan zen, hau da, pertsones ez dute afektibitate asko ematen autismoa dituzten pertsonen. Gainera askotan, trastornatuak izango balira bezala zaintzen zituzten Ebaluazioari dagokionez argi izan behar dugu, heziketa espeziala jasotzen dituzten pertsonen ebaluatzen zaiela bakarrik hauen ezagutza gehiago izateko eta ez haien juizio bat egiteko.

Ikus dezakeguna da, ez dela orain sortu estilo berri bat atentzio heziketan eta aldaketa lan berri bat egin nahi badela enfoke historiko-kultural batekin, material oinarritutako ikerketa eguneratuen formakuntza planak sortu behar direla, esan ahal izateko berdintasunarekin unitate bat garelako. Hau guztia kontutan izanda, etengabeko ikerketa eta formakuntza behar dela ikus

dezakegu.